

# Nola lagun diezaiekegu gure seme-alabei ikasketekin?

**1. Ikastetxearekiko, irakasleenganako eta aparteko betebeharekiko jarrera positiboa izaten.**

Nahiz eta Ikastetxea etxeko lanak bidaltzearekin ados ez egon, elkartasuna erakutsi behar dugu, pazientzia, betebeharen balioaz eta eguneroko lanak duten garrantziaz jabetu, ikastetxeaz ondo hitz egin ikaslearen aurrean, beraien lana balioetsi... guzti horrek ikasleen jarrera positiboan eragin zuzena baitauka.

**2. Ikasteko espazio finko batez hornitzen.**

Espazio erakargarri bat prestatu: garbia, argitsua, eroso, atsegina, isila eta entretenimendu edo distrazio –telebista, mugikor, etab. – gabekoa.

**3. Ikasteko eguneroko planifikazioa egiten eta ohiturak ezartzen.**

Ikasketa orduak adinarekin aldatzen doaz: LHko lehen hiru urteetan 30 minututik 1h-era bitartekoa izan daiteke; eta azken hiru urteetan, ordea, 1h-etik 1h eta erdira bitartekoa.

Eskolaz kanpoko ekintzetan badabiltza, ez da komenigarria gainkargatzea; beraz, konbinatu egin beharko dituzue ekintzok umearen onurarako.

**4. Antolatzen eta planifikatzen laguntzen.**

Agenda erabiltzea oso garrantzitsua da. Bere azterketak, lanak, data zehatzak... apuntatuko dituzte, beraz, komenigarria da gurasook agenda kontrolatzea; horrela, lan-zamaren eta bakoitzaren ahalmenaren arabera ikasketa-garaia hobeto antola daiteke.

Ziurtatu, baita ere, behar duten material guztia daukatela.

**5. Bere autonomia eta betebeharekiko erantzukizuna indartzen.**

Guk pentsa baino gaitasun handiagoa dute. Beraz, urtetik urtera, erantzukizun gehiago emango diegu, autonomoagoak izan daitezen eta, azken finean, askeago.

Horretarako, beraiengaiengan sinistu behar dugu, konfiantza eman eta betebeharekin lagundu bai, baina adinaren eta gaitasunaren neurrian, gehiegi babestu gabe.